

1992-ko Apirilaren 23-koa
5,00 libera

ISSN 0767-7643

Nº 2151

ESKOLAREKIN ASKI ?

Bixkotxen egitea dute haurrek egun eskolan.

Amak bezala : hau da alabaina etxeko gauza on gehienegia. Egun ere, egia erran, haren eskutik dira goxogailu horien gaiak, arroltze, irin, asukre ta beste, hor baita beti ama gibeletik, esku ixilez bada ere.

Baina aldi hontan haurrek dituzte bixkotxak egiten. Beste orduz hala hala dute ilar edo arto zenbait eskolako baraztean beren eskuz eraina, kasik beren begiz ondoko egunetan sortzen eta larritzen ikusteko.

Bi kasuetan ere, ez izan beldurrik : ona izanen da bixkotxa, ederra artoa edo ilarra, berea baitu hura haurrak, bere eskuen gustuz eginik alabaina.

Zenbat beste balentria ez dute haurrek bestalde egiten eskolan ! Euskara ere ikasten da orain eskolan, lehen egiten ez zena. Berezikiago, bistan da, ikastolan.

Ordu zen segurki. Nola irauin baitu ere orain arte euskarak batere eskolarik gabe, egundainokotik !

Aldatua dugu mendea. Ikas eta erakats denbora hauetan denek dauzkate beren eskolak : ofizioek, laborantzak, pilotak eta beste kirolek eta, orok dakiguna, lehenik mintzairak.

Bakoitza bere lekuan egonez halere. Eta eskola egonez beti bigarren, ez sekulan hura lehen. Badakite hori erakatsle onek : nik dakidan batek laboraria ekar-arazi du eskolarat, diruzaina, bertularia eta ofiziala halaber, bakoitza mintzaraziz hurren aintzinean bere ofizio edo gaiak, erakutsiz hura dela han egiazko erakatslea. Hobeki oraino, bere etxerat komitatu ditu denak, etxaldearen ikusteko.

Zertako den beraz eskolako erakatslea : ofiziokoak denaren mintzarazteko, ikasle ta erakatsleen arteko lokarri egile eta ofiziokoak buruetan ezarri itzearen aintzina jotzeko, biak itze berari ariz ofiziala eta erakatslea.

Euskal mintzaiarekin berdin berdina. Idazle ta idazki zaharren berri badakirerriantak, andereñoak halaber, ez dezake honek berak asma bere burutarikako euskara bat, izanik ere orraztatua edo batua.

Hots, erakatsleak du artarik haundiena hartuko, heian zaharren euskara hura bera den haurrerri emana zaiena, denbora berean gaurkotua izanik ere hau. Gaurkotua bai : gaurko gaiak eta hitzak behar baititu gure mintzaira zaharrak iretsi eta erdi edo sortu, bai-eta ahal guziaz denen esku eta mihia beharrietarako berdinu.

Hola ari badira denak, ez dugu gataska gehiegirik ikusiko euskara zaharra eta berriaren artean, lehenaren ume zuzena izanen baita bigarrena.

Zahar gazteen parabola betikoa dela, hori ere egia da. Baina zaharrek, gogorregi ez badaude, badakite gazteen jautzkor haren jasaiten eta hezten, hauk ere zaharren arrazoienei itsu eta elkor ez daunder ber.

Errespetu batek emanen die bakoitzari neurria : ofizioaren, edo mintzaiaren beraren errespetuak, hau ez baitute alabaina berea ez batek ez besteak.

Gure mintzaira zaharren jabea nor den beraz : ez zu eta ez ni, irakurle zahar edo berria, baina gure herria bera.

Honek berak atxik gaitzala neurrian, haur on batzu bezala.

E.L.

HERRIA

- Tréville Pastoralia igandean Irurin(ikus 5)
- Baigorriin, Kultur Astea larunbatean haste(6)
- Bi Nafarroen harremanez(6)

ARARTEKO BAT EUSKADIN JUAN SAN MARTIN JAUNA


Juan San Martin Ortiz de Zarate Jauna da Euskal Autonomia Elkartearen lehen Arartekoa. Eibarren jaioa 1922.urtean. Egun, Hondarribian bizi da eta "Hondarribiako Eibartartzat" du bere burua.

Euskaltzain osoa, anitz urtetan Euskaltzaindiako idazkaria izana, Euskal Herriko lehen bertulari txapelketan antolatzaileetarikoa bat, idazle oparoa, berak ere ez daki bere liburu eta idazkien kopurua eta beti segitzen. Mendizale sutsua, eskalataile ausarta, gogoratu bera izan zela Goi Mendietako lehen eskalada-irakasleetarikoa eta baita ere, Biarno San Martingo Leizearen hasteko garai haietan aztertu eta arakatu zuena. Izan ere, Juan San Martinek beti izan du Zuberoarekiko begiramen berezi bat, artzainak Etxahun Barkoxekoa eta Irurikoaren pastoralak eta beste... "Mendia izan da zalantzarik gabe nire bizitzako zaletasunik handiena", behin baino gehiagotan entzun diogun solasa.

Gizon apala eta atsegina, bere bizitza osoa Euskarari eskaini dio eta Euskara izan du bere gidari bere herriaren zerbitzuan. Etnografia, Literatura, Artea eta Historia dira, beste gaien artean, gehienbat jorratu dituen gaiak.

Gaur egun, Gasteizen dihardu Arartekotza lanean. Nehork merezi izan badu bere jakinduria, bere osotasuna eta bere zintzotasunagatik kargu horretan egotea, hori Juan San Martin dugu.

Huna guk aldiz zer elkarriketea erabili dugun Ararteko Euskaltzain adixkidearekin.



Juan San Martin Jauna

• Zer da Arartekoa ?

— Mundu guztian "Ombudsman" bezala eta Frantzian "Mediateur" edo "Protecteur du Citoyen" gisa ezagutzen denaren antzekoa da. "Mediateur" delakoarekin bada ezberdintasunik. Frantzian, Errepublikako Presidentek hautatzen du eta ni, gainerako Europako Nazioetara bezala, Legebiltzarrek (Parlamentuak) hautatu nau.

• Noiz izendatu zintuzten kargu horretarako ?

— 1989. urteko Martxoaren 8an izendatu ninduen Eusko Legebiltzarrek. Beraz, aurten hiru urte bete dira, eta gauzak bere bidetik badoaz beste bi urte gelditzen zaizkit.

• Zein da zure eginkizuna ?

— Laburki esanda (erranez), herritarrek, Administrazio Publikoaren gehiegikeria eta utzi-keriarengandik babestea (gerizatzea). Nere ahalegin guztiak bide horretatik doaz.

• Eta herriak ba ahal daki Arartekoa zer den ?

— Hori, nik baino hobeki herria berak esan beharko du, baina, nik baietz uste dut. Horren froga hau da, urtez-urte kezak gehituz doazela. Horrek ez du esan nahi guztia egina dagoenik. Oraindik lan asko dago egiteko, baina ari gara eta bide onetik goazen ustetan gainera.

Bestalde esan behar da, honelako Erakunde bat ez dela egun bat eta bitan burutzen, denbora behar du, norabidea argi eta garbi izatea da garrantzikoena, nora joan eta heldu nahi den jakitea. Hori jakinez gero, eguneroko lana da honen sekretu bakarra.

• Zein da zure ustetan egun duzun arazo edo larriena ?

— Nere helburua, hiritarra Administrazio Publikoaren aurrean (aitzinean) babestea izanik, Administrazio honek behar bezala bere eginkizuna, bere funtzioa bete araztea dut lanik nagusiena. Baina, hau guztia, Eusko Jaurlaritzak kompetentzia duen gaietan bakarrik.

• Aurten hiru urte bete dituzu...

— Eta hiru urte bete ondoren, atera dudan ondorioak azpimarragarriena zera da : "merrezi duela langintza honek, azken baitan, gizakia bait da gauza guztien neurria".

• Iparraldean ez dugu zu bezalakorik...

— Honelako irudi edo kargu bat izateko ahalleginak egin ditzan bultzatu nahi zuke Iparralde osoa. Hor ere ez litzateke gaizki etorriko Ararteko bat.

• Euskal Herriak egun duen egoeran zer eskatuko zenuke ?

— Gelditzen zaidan epe honetan, demokraziaren zentzua eta bidea oraindik ere gehiago sakonduz, gizarte baketsuago, helduago eta ulergarriago bat uztea eta, era berean, gizakien eskubideekiko errespetua azkeneraino eramatea.

• Etor bekigu agian zu iduri bat guri ere, San Martin jauna.

HERRIA